

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN 2007-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Herriko Unibertsitatearen ekonomia-finantza jardueraren 2007ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

HKEEren iritzira, Unibertsitateak zuzentasunez bete du bertako ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia; salbuespen dira, ordea, aurrekontu, langileen gastu eta administrazio kontratazioari buruzko hainbat jokamolde.

Aurrekontuari dagokionez, Epaitegiak adierazi du 120 milioi euro inguruko aldaketak egin direla atxikitako finantzaketa duten gastuetarako kredituak gaituz eta geldikinak txertatuz, horretarako eskumena duen atalak onetsi gabe. Nolanahi dela ere, gerora Gizarte Kontseiluak Txosten Ekonomikoaren onespeneren ondorioz txertatutako geldikinei dagozkien 61 milioi euro onetsi izana azpimarratu du.

Langileei dagokienez, ez dela irakasle eta ikerlarien Lanpostu Zerrenda EHAAn argitaratu jakinarazi du Epaitegiak, Eusko Jaurlaritzak kostua baimendu gabe duelako.

Administrazioko kontratazioan azpimarratu diren alderdiak dira:

-Leioa eta Bilbon eraikin berriak eraikitzeko kontratuari dagokionez, 51 milioi euroan esleitu direnak, Epaitegiak azpimarratu du proiektuaren erredakzio eta obraren exekuzioaren lizitazio bateratua ez dela egoki justifikatu lege arautegiaren arabera eta administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu duela Arkitekto Euskal-Nafarren Elkargo Ofizialak, txosten hau idatzi dugun datan ebazteko dagoena. Berebat, kontratuaren lizitazioa jarduera esparruaren hirigintzako garapena gauzatu gabe zegoela egin zen eta honenbestez, ezin zehaztu izan ziren zegozkion hirigintzako aprobetxamenduak. Amaitzeko, azpimarratu du administrazio klausulen pleguak eskaintza ekonomikoaren gaineko berrikuspena egitea aurreikusi duela, ustezko obren hasiera dataren eta egiazkoaren artean igarotako aldiatik.

-Aurrekontuak osorik kudeatzeko zerbitzuen kontratuan, 5 milioi euro inguruko aurrekontua zuena, arkitektura eta obren zerbitzuak ez du kanpoko kontrataziora jotzeko giza baliabide eza justifikatuko duen nahitaezko txostena mamitu; berebat, xedea eta prezioa zehaztean akatsak azaleratu dira eta zerbitzu berriak barne hartu dira, arautegiak kontratuak aldatzeko aurreikusten duen araubidea urratuz.

-Azkenik, lehia mugatu zaien lau kontratu azaleratu dira eta beste hamaika, arautegiak finkatutako esleipen prozedurak bete ez dituztenak.

EHUren Kontuei dagokienez, Epaitegiak uste du aurrekontuko kontularitzako egoerek egoki erakusten dutela aurrekontuko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondotik adierazitako salbuespen hauekin:

-EHUK ez du egoki kontrolatzen Berariazko Geldikina eta hainbat akats azaleratu dira, hala nola, barne hartutako programei, erregularizatu ez diren beste batzuei eta lan zientifikoak egiteko kontratuen kontrol eskasari buruzkoak eta honenbestez, ez daiteke horren zuzentasunari buruzko iritzirik, ezta Gastu Orokorretarako Geldikinari buruzkorik eman.

-EHUren Kontuek ez dute geroko ekitaldietarako hitzartutako inbertsioei buruzko informaziorik ematen, ekitaldi itxieran 9 milioi euro egin dutenak. Bestalde, Pilatutako Emaiza 6 milioi euro murrizten duten doiketak azaleratu dira.

Halaber, HKEEK barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, izaera zientifiko, tekniko eta artistikoa duten lan, kontratazio eta berezko tituluaren arloetan.

Gauzatutako finantza analisiak erakutsi du nabarmen areagotu dela 2006 eta 2007ko ekitaldietako Emaiza Arrunta, batik bat, urteko gastua finantzatzeko Eusko Jaurlaritzatik eratorritako sarrerek gora egin dutelako. Hala ere, esan behar da Gastu Orokorretarako Geldikina negatiboa izan dela berriz 2007an, batez ere, Berariazko Geldikinak izan duen igoeragatik.